

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Arimak pizturik dirau.
Elbereth.
Ortots Burdin Hotsak.
Iraupena: 45'14".
10 euro.

Berezko odol heavyari urteek ematen dioten sendotasuna

LEGAZPIN bada heavy eta metalaren nola-baiteko harrobia, eta horien artean Elbereth nabarmentzen da. Donostialdeko Ortots metalaren plataformak lagunduta, bigarren lana dute, dotore aurkeztua. Gogortutako taldea aurkitu dugu: iraganekeo heavy-metaletik harago joan dira, thrash klasikoaren indarra, abiadura eta riff astunak bereganatu dituzte. Hala ere, heavya betirako izan ohi da, eta horregatik, ez dira falta punteatze distiratsuak eta

melodia borobilak; bi joeren arteko oreka lortu dutela esan dezakegu lasai asko. Bestalde, kantek garapen handiak dituzte, eta tarteka sartutako organo, sitar eta bes-telakoek are gehiago mimatzen dute emaitza. Oro har soinu indartsu eta aldi berean gardena da lortutakoa, eta hitzak –euskarazkoak guztiak– ere etxean ondo landuta ekarri dituzte.

www.myspace.com/elberethtaldea

Elbereth

«Heavy metalaren historia iluntasunarekin lotuta dago, eta gu ere horrek erakartzen gaitu»

Erraza da metalaren "arima pizturik" edukitzea? Zerk elikatzen du horren sua?

Guretzat bai. Betidanik metala edo heavy metala gurean dagoen zerbait izan da. Taldea izan aurretik ere metala zen elkartzeko puntua. Musika estilo horren indarrak, melodiak eta garrak erakartzen gaitu. Ikusle bezala ere asko disfrutatzen dugu. Gure bizitzako alde garrantzitsua izan da beti, eta oraindik suak pizturik dirau.

Zer ekarri dio Xabier bateria jotzaileak taldeari?

Erraza izan da bat egitea?

Xabier aspalditik ezagutzen dugu, lokalean gurekin ibili zen. Guk garbi geneukan Enekok utzi zuenean Xabier sartu behar zela. Ez genuen ez galdetu ezta bilatu ere, etortzeko esan genion. Bagenekien

nahi izango zuela, eta guk bera nahi genuen. Garrantzitsua da guretzat laguna izatea.

"Musika... zure aurrean makurtzen naiz". Konposizio batzuetan bezala, hemen ere keinu bat egin diozue Su Ta Gar taldeari?



Guretzat mitikoak dira. Txikitatik jarraitu ditugu, eta horrelako keinuak gustuko ditugu. Bi diskoetan egin ditugu antzeko keinuak; bai hitzetan, abestien ordena egiterakoan... Agian nahiko frikia da, baina guri asko esaten digu. Musikan, berriz, disko

honetan ez dugu uste halako antzekotasunik dugunik. Hala ere, guretzat luxuzko konparaketa litzateke.

"Edan nahiaren gatibu/ ardoa odol da bihurtu/ bizi berotasun izoztua". Halako poemak Zirkulazio Zuzendari-tzarentzat idatzi dituzue?

Kanta horretan damuari buruz hitz egiten dugu, eta istorio horrek oso ondo adierazten duela uste dugu; une bateko ekintza batek bizitza osorako izan dezakeen zama. Hitzak egiten lehengo bateria jotzaile Enekok lagundu digu, eta gero Rubenek eta

haren lagunak borobildu dituzte. **Iluntasunak eta horren itzalak seduzitzen zaituztete?**

Bai. Heavy metalaren historia iluntasunarekin lotuta dago, eta gu ere erakartzen gaitu bai hitzetan, bai diseinuan. ■